



Denbora-

1 Kopiatu laukiz lauki

Joanes bere etxeko lorategian dauden inurriei argazkiak ateratzen aritu da. Hona horietako bat. Marraztuko al duzu irudi bera hutsik dauden laukietan?



2 Hitz zuzenaren bila


Peru idazlana egiten hasi da, baina ez daki oso ziur hainbat hitz nola idazten diren. Lagunduko al diozu hitz egokia aukeratzen?

Erantzunak: 2.-Albaitari, erakusketa, leihotik, armairu eta hemendik. 3.-Sudurra, begiak, belarriak eta ahoa. 4.-1-e, 2-a, 3-d, 4-c, 5-f eta 6-b.

3 Ezkutuko hitza

Hizkien nahaste-borraste honetan gorputzeko lau atalen izenak daude ezkutaturik.

Ordenatu hizkiak, eta osatu atalen izenak.




- pasak

4 Hitzekin jolasean

Ezkerreko lerroan dauden hitzak eskuinean ere idatziak agertzen dira. **Non da hitz bakoitza?**

1	kexa	a)	udneliag
2	gailendu	b)	irakrua
3	txiro	c)	etokib
4	bikote	d)	orixt
5	etorkizun	e)	axek
6	aurkari	f)	nuzikrote



5 Labirintoa

Aizkolariari, enborra mozten ari zela, ihes egin dio aizkorak. Nora joan da, baina? **Zein bide hartu behar du aizkora dagoen lekura iristeko?**

Harritxoaren jokoa

Harriak jaurti eta airean dauden bitartean beste ezer egiteko astirik ematen al du? Probatu nahi? Ea azpiko ariketak egiteko gai zaren!

1 Jokalari bakoitzak txandaka ondoko ariketak egitea da jokoaren funtsa. Baten batek ariketaren batean huts egiten duenean, eskuineko jokalaria emango dizkio bost harriak, jokatzen jarrai dezan. Huts egin duen jokalaria txanda iristen denean, jokoa utzi duen lekuan jarraituko du.

2 Lehen ariketa: jokalaria aurrerantz jaurtiko ditu harriak. Lurrean dauden bost harrietatik bat hartuko du eskuetan. Horixe izango da komodina. Komodina gorantz jaurti eta berriro eskuetan hartu aurretik, lurreko beste harri bat hartu behar du. Lurretik hartutako harria beste eskura pasatu, eta gauza bera egingo du lurreko harri guztiak bildu arte.

3 Bigarren ariketa: lehen jokoa egindakoa errepikatu behar da, baina harriak lurretik banaka hartu beharrean binaka hartu behar dira. Hori egindakoa, hirunaka, eta, ondoren, launaka. Kasu horretan, komodina airean dagoen bitartean lurrean dauden beste lau harriak jaso beharko ditu jokalaria.



4 Zubiaren ariketa: hatz lodiarekin eta erakuslearekin zubitxo bat osatuko du jokalaria. Komodina zerurantz jaurti, eta airean dagoen bitartean harritxoak banaka-banaka pasatu beharko ditu hatzekin egindakoa zubitik.

5 Zapoia zuloan izeneko ariketa: hatz lodiarekin eta erakuslearekin zulo bat irudikatuko du jokalaria. Komodina airean dagoen bitartean, lurreko harritxo bat hartu eta zuloan sartu behar du. Azken jaurtiketan, zuloan bildutako harriak jaso beharko ditu esku bakarrean.

6 Azken ariketan, harri guztiak gorantz jaurti behar dira eta bi eskuen artean jaso. Harriak jaurti eta bi eskuetan osatutako ontzian jasotzea izango da azken pausoa. Hori guztia egitean amaituko da jokoa.